

ANDONI SAGARNA

Andoni Sagarna (Donostia, 1947). Goi-mailako industri ingeniaria (1971, Nafarroako Unibertsitatean), elektrizitatea-elektronika espezialitatean. 1988an, *Algunos aspectos de la modernización de léxico en diversas lenguas* tesia aurkeztu zuen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan, eta Letretan doktoretza eskuratu.

2004tik, aisia eta kulturako produktuen sorkuntzan dihardu, *Elkar* enpresa-taldeko I+G+b arloko zuzendaria delarik. Bestalde, Euskara Zientifikoa irakasgaiko irakasle da, Nafarroako Unibertsitatearen Ingeniaritza Industrialeko Goi-mailako Eskola Teknikoan.

2004tik hona, Eusko Ikaskuntzaren *Hiznet* Hizkuntza Plangintzako ikastaroan irakasle.

Euskaltzain urgazle, 1987tik. Euskaltzaindiaren barruan Hiztegi Batuko lan taldean dihardu azken urteotan. LEF (Lexiko Erizpideen Finkapena) batzordearen kide eta EEBS (Egungo Euskararen Bilketa Sistematikoa) batzordearen idazkari-arduradun izana, martxan zeudenean.

1972an, Elhuyar Kultur Elkartearen sortzaileetakoa izan zen. 1985etik 1994 arte, Elhuyar Kultur Elkarteko burua. 1981etik 1992ra, UZEIko Zuzendari Teknikoa izan zen. Zuzeneko esku hartzea izan zuen *Fisika Hiztegian*, *Banka Hiztegian*, kirol-arloko *Kirolkidea* hiztegian, *Glotodidaktika Hiztegian*. Ardura nagusia izan zuen *Teknologia mekanikoa* hiztegian.

1992-1999 bitartean entziklopediagintzako Eusenor enpresan Zuzendari Tekniko izan zen. Ondoko egitasmoetan zuzeneko partaidetza izan zuen: *Hiztegi entziklopedikoan*, *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa* (8 tomo), *Gazteen Entziklopedian*, *Entzikloklik* CD-ROMean.

1999tik 2004ra bitartean, Plazagunea enpresan informatika-arloko proiektu arduradun izan zen. Besteak beste, Jalgi bilatzailean partehartze zuzena izan zuen.

1989tik 1993ra, Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Aholku Batzordearen kide izan zen.

Soziologiaren hastapenak (1970), *Teknologia elektrikoa* (1982), *Hizkuntza minorizatuen soziologia* (lankidetzan, 1986) eta *Euskara-irakaslearen eskuliburua* (1989, lankidetzan) argitaratu ditu. Artikulu ugari ere idatziak ditu.